

Bizkaiko Eskola Txikiak koordinadora bat osatzen



PASA DEN EKAINEAN ESKOLA TXIKIEN AURRENEKO TOPAKETAK OSPATU ZIREN BERGARAN. BERTAN ARABA, GIPUZKOA ETA BIZKAIKO ESKOLA TXIKIETAKO GURASO ETA IRAKASLEEK PARTE HARTU ZUTEN. GIPUZKOA KOORDINADORA ESKOLETAKO ARAZOAK KONPONTEKO ETA HARREMANAK MANTENTZEKO OSO EGOKIA ZELA IKUSITA, KOORDINADORA BAT OSATZEA PROPOSATU ZUTEN BIZKAIAN.

Bergaran bildu ziren 108 guraso eta irakasleek eskola txikien egungo egoera aztertu, ezaugarriak, oztopoak eta abantailak zehaztu eta etorkizunari buruz hitz egin zuten. Hor eskola txikien gurasoen partaidetza bultzatzea erabaki eta Bizkaian koordinadora bat osatzea ere planteatu zuten. Egun lehenengo pausuk eman dituzte.

Zer da eskola txikia?

Eskola txikia zer den definitzeko kriterio bakarra ez den arren, herrietan dauden eta ikasle kopuru txikia duten (90 baino gutxiago normalean) Haur eta Lehen Hezkuntzako eskolak dira. Herriko edo auzoko eskola bakarrak izaten dira eta 6 unitate (edo 8 unitate) baino gutxiago izaten dutenez, adin desberdinetako ikasleak biltzen dira gela berean.

Eskola txikietakoko hezkuntza- sistemak ezaugarri zehatzak dauzka, horien artean

abantailak eta oztopoak daude. Abantailen artean interakzioa eta integrazioa aipatzen dira. Umeek talde txikietan ikasten dute eta adin desberdinetakoak dira, horrela konparazioak egiteko eta konpetibitaterako aukera gutxi geratzen da. Zailtasunen artean irakasleen gehiegizko eginkizunak eta materiala egokitzeko zailtasunak nabarmenak dira. Azpimarratu behar da erlazio zuzenagoa dagoela eskola osatzen duten partaide guztien artean.

ESKOLA TXIKIAK BIZKAIAN

Bizkaian 27 eskola txiki ditugu sei zonaldeetan banatuta: Busturialdean, Uribe-Kostan, Enkarerrietan, Lea-Artibain, Durangaldean eta Arratia-Nerbioin. Hauek 2 eta 6 unitate artean dituzte eta 1800 biztanle (edo gutxiago) dituzten herrietan kokatuta daude. Bizkaiko eskola txikietan ez dago unitate bakarrek eskolarik beste herrialdeetan bezala. Hemengo herriak haundiagoak

direnez haur gehiago dago. Gipuzkoan ez bezala, Bizkaian ez dago eskola txikien koordinadorarik.

Orain arte koordinadorarik ez egon arren eskola txiki batzuk elkarrekin lan egiten ohituta daude. Hau da Arratia-Nerbioin gertatzen dena. Zonalde honetan Arrankudiagako eskolak, Areatzakako eta Zeberioako elkarrekin lan egiten dute.

Egun Bizkaiko eskola txikietakoko guraso batzuk koordinadora sortzeko pausuk ematen ari dira eta azaroaren amaieran Bizkaiko Koordinadora osatzeko batzarra egitea erabaki da. Horren helburuak eskola txikiak elkarrekin lan egin, arazoak aztertu, estatusa definitu eta beharrak finkatzea dira. Horretarako koordinadora hau Gipuzkoakoa hasi zen eran abiatuko da, horren esperientziari jarraituz. Ekaineko topaketeten emaitzak eskola txiki guztietara bidaliko dira baita hurrengo batzarrean eta koordinadorean parte hartzeko gonbidapena ere.



Eskola Txikien abantaila batzuk	Eragozpenak
<ul style="list-style-type: none"> - Interakzioa, elkarrekiko ikaskuntza - Harreman aberatsagoak - Bakoitzaren erritmoa gehiago errespetatzen da - Zailtasunak dituzten ikasleentzako rol ezberdinak bizitzeko aukera - Integrazioan laguntzen du - Elkarrekin lan egitea aberatsagoa da - Autoestimua igotzen laguntzen du - Ardura gehiago hartzeko aukera 	<ul style="list-style-type: none"> - Materialak egokitzeko zailtasuna - Testu liburuak, fitxak - Irakasleen ezegonkortasuna - Antolaketan lan handia - Irakasleen gehiegizko eginkizuna - Talde txikiak direnean zailtasunak - Beste eskolekin elkarlana egiteko baliabide falta - Estatusaren definizioaren falta



LEMOIZKO ESKOLA TXIKIA

Lemoizko Haur Hezkuntzako Ikastetxearen aita batekin, Jesús Mª Arizmendirekin hitz egin dugu eskola horren historia ezagutzeko.

-Noiz eta nola hasi zen Lemoizko Eskola Txikia?

1998/99 ikasturtean biltzen hasi ginen interesatuta geunden familia batzuk. Pauso batzuk eman eta egin beharrekoa osatu ondoren (aintzinako eskola eskola zabaldu zen Urizarren, Lemoizko erdigunean, haur hezkuntzako 2, 3 eta 4 urteko umeekin. Hamahiru ume geneuzkan orduan. Aurten, 29 umerekin, lehen hezkuntzarekin hasi nahi genuen baina ezin izan dugu.

-Zeintzuk izan dira zailtasun handienak?

Hasieran herrian ere zalantzak zeuden gure proiektuaren inguruan, etorkizunik ez zeukala uste baitzuen jendeak. Orain Udala bera ere guztiz konprometitu dago eskolarekin, baina Bizkaiko Delegaritzatik

etorri dira arazoak. Udala beste lokal bat egokitzen ari da gela bat gehiago izateko eta lehen hezkuntzarekin hasi ahal izateko. Aurten 29 ume ditugu, honek ume kopurua handitzen dela erakusten du eta etorkizuna badugula argi daukagu, behintzat lehen hezkuntza gure herrian izateko. Baina Delegaritzak ezetza eman digu.

-Ezetz hori zertan oinarritu da?

Pedagogikoki gutxienezko ume kopuru bat behar dela, azpiegitura nahikorik ez daukagula, inbertsio handia egin behar dela baina etorkizunik ez dagoela... atsekabe handia jaso dugu, bai gurasoek baita umeek ere, batez ere beste eskoletan zeuden eta duela bi urte gurera etorri zirenek. Beraiek izan ziren proiektu honen bultzatzaileak eta orain eskola utzi egin behar izan dute. Bizkaiko Delegaritzak ez die garrantzirik ematen eskola txiki. Gipuzkoan ordea, beste sentsibilitate bat dute, agian koordinadora daukatelako.

-Zuen eskola osatzeko eta garatzeko beste eskolekin harremanetan izan zarete?

Batzuekin bai, eta batez ere Gipuzkoako koordinadorearen laguntza jaso dugu, hauek hitzaldiak ematera etorri dira, besteak beste.

-Zertan desberdintzen da eskola txikietakoa eta "haundietako" gurasoen lana?

Inplikazioa handiagoa da, gure eskolan hilean behin biltzen gara eta familia gehienak etortzen dira. Eskolaz kanpoko ekintza batzuk Udala eta kultur etxearekin antolatzen ditugu, esaterako euskal dantzak, musika ikastaroak, igerilekuetarako irteerak eta asteburuko irteerak ere... Gurasoek ekintzak proposatu eta garatzeko laguntza ematen dugu. Bestalde, eskola txikietan ikasle bakoitza eta familia bakoitza oso inportantea da, bertan egon behar duzu eta zaindu.

-Zer espero duzue orain?

Honetan lortu ez duguna hurrengo ikasturtean lortzea espero dugu, hau da, lehen hezkuntza gure herrian jartzea. Baita Bizkaiko egitura martxan jartzea ere, hasiera zaila da, baina prest gaude. Presenteagoak izan behar dugu bai gure artean bai Delegaritzaren aurrean. Koordinadorea elkar ezagutu, informazioa jaso eta zabaltzeko tresna ona izan daiteke.

SAREAN
www.euskalnet.net/urkitzaikas/
www.aretza.net

27 Eskola Txiki

Amoroto, Angel Larena (Artzetales), Apatamonasterio (Atxondo), Areatza, Arrankudiaga, Arratia (Artea), Berriatua, Eduardo Eskartzaga (Gordexola), Gatika, Ispaster, Jose Mari Ucelay (Busturia), Jose Sierra (Turzios), La Arboleda (Trapagaran), Lamiako (Leioa), Laukariz (Mungia), Laukizko, Lauaxeta (Laukiz), Learreta, Markina (Mallabia), Lemoiz, Manuela Zubizarreta (Etxebarria), Montorre (Gautegiz Arteaga), Munitibar, Otxandio, Urkitza (Bakio), Urregarai (Aulesti), Urretxindorra (Muxika), Zeanuri, Zubialde (Zeberio)